

Iruñan, 2018ko ekainaren 22an

IRUDIKA DEZAGUN ERLIJORIK GABEKO ESKOLA!

Hezkuntza laikoa bakarrik da askotariko herritarron askatasun bermea.

Hezkuntza laikoak soilik erantzuten dio herritar guztion kontzientzia askatasun beharrei, eta jendarte guztiaren aniztasun ideologiko, sozial zein politikoei adierazpide demokratikorako bide ematen dio.

Bide honetan, pertsona bakoitza aske da erlijio bakoitzak markatzen duenaren arabera bizitzeko, baina erakunde publiko oro hauengandik at mantendu behar da, guztiona izanen bada. Honetaz, erlijio guztiek, jendarte zibilean eta kultu lekuetan izan dezakete lekua, inoiz ez ikastetxeetan.

Gai hau pil-pilean izan dugu egunotan Nafarroan, Parlamentura eraman baita bertako ikastetxeetan Erlijio irakasgaiaren klase orduak murrizteko lege proposamena, EH Bildu, Podemos-Ahal Dugu eta Izquierda-Ezkerra taldeen eskutik. Zoritxarrez, beste behin ere Geroa Baik ez du izan ausardia politikorik eta kontua Madrilan erabaki behar dela argudiatuz saio bateko murrizketari ezetza eman dio, saio horretan beste arlo batzuk emateari atea itxiz. Honela, lau gobernuak bere Akordio Programatikoa jasotzen zuena ez du beteko. Madrileran eramatearekin, Espainiako Kongresuan honek izan dezakeen bidearekin ezkor gara oso.

STEILASen urteak dira laiktasuna bermatzearen alde kanpainak egin ditugula, eta saio murrizketa oro ontzat hartuko genukeen arren, borrokan jarraituko dugu erlijioa ikastetxeetatik at izan arte.

Honen harira hainbat elkarte eta sindikaturen batek egunotan bazterrak nahasi dituzte, neurria aurrera eramatekotan galduko liratekeen irakasle kopuruari erreparatuz.

Gaia hurbiletik ezagutzen dugunok aspalditik dakigu sasi-irakasle hauen kontratazioaren irregulartasunak zeintzuk diren: artzapezpikuaren apetazko izendapenak edo behar direna baino saio gehiagotarako kontratatutak izatea. Noiz arte onartu behar dugu kuriak nahieran gure seme-alabekin egonen diren irakasleak hautatzen jarraitzea eta guztion diruz hori babesten jarraitzea?

Bitartean, irakasle arrunt oro zerrenda publikoetan gora-behera ari da lanpostu duintan bila, oposizio baztertzaileetan parte hartuz, irakaskuntzarako gaitasun masterrak ordaindu eta ikasiz. Dena esfortzua batzuentzat, abadeen gonapean loriaz gozatuz besteak.

Gure eskoletan irakasten diren erlijioen doktrina ofiziala eta gure legedian dauden berdintasunaren aldeko legeak kontrajarriak dira. Lege hauek parlamentu demokratikoei onartu dituzten bitartean, erlijio katolikoaren derrigorrezko irakaskuntza frankismo garaitik datorren inposizioa da.

Sinesgai eta erlijiorik gabe heziko duen eskola behar dugu, non horren orde balore etiko, ez sexista ezta LGTBIfobikoak, edota eskubideak zein irakaskuntza artistikoak landuko diren.

Amaia Zubieta eta Aitor Laka

STEILAS sindikatuko Idazkaritza Nazionalkideak

www.steilas.eus

Araba ☎ 945 14 11 04
araba@steilas.eus

Bizkaia ☎ 944 10 02 98
bizkaia@steilas.eus

Gipuzkoa ☎ 943 46 60 00
gipuzkoa@steilas.eus

Nafarroa ☎ 948 21 23 55
nafarroa@steilas.eus

steilas

www.steilas.eu

Araba 📞 945 14 11 04
araba@steilas.eu

Bizkaia 📞 944 10 02 98
bizkaia@steilas.eu

Gipuzkoa 📞 943 46 60 00
gipuzkoa@steilas.eu

Nafarroa 📞 948 21 23 55
nafarroa@steilas.eu